

**2012KO EKAINAREN 7AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Zazpia.

HILABETEA: Ekaina.

URTEA: Bi mila eta hamabi.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: Aitor Larburu Izaguirre
Asier Sarriegui Zumarraga
Iñaki Saldaña Herrero
Aitor Aldasoro Iturbe
M^a Luisa Valles Fernandez
Leire Artola Ugalde
Iñigo Arrese Artabe
Encarna Arrieta Telleria
Eva Diaz del Rio
Alfonso Segade Gonzalez
Ana María Crespo Blanco
Josi Insausti Mujika
Julio Herreros Serna
Unai Baztarrika Otegi

ETORRI GABEAK: M^a Mar Celaya Gonzalez
Cecilia Herrador Garin

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2012ko apirilaren 26ko akta onartzea.

Ezagutzera eman ondoren, 2012ko apirilaren 26ko akta, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ORMAKekin HITZARMENA. Bijarpen helegitearen ebazpena.

Ezagutzera eman da hirigintza batzordearen proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

I.- 2011ko uztailaren 21ean egindako Udalbatza Osoak ondorengo erabakia hartu zuen:

*“**Lehenik.** Ainara Zaldua Davila eta Juan Vicente Panadero jaun-andreak 2011ko ekainaren 13an aurkeztutako alegazioak ebaztea, deuseztatuz, aipatutako txostenen arabera.*

***Bigarren.** 2011ko maiatzaren 20an GAOean argitaratutako, Beasaingo Udalaren eta ORMAK, S.L.ren artean, sinatu beharreko hitzarmena behin betiko onartzea eta Alkate jaunari baimena ematea sinatu ahal izateko.*

***Hirugarren.** Erabaki honen berri, alegazioa aurkeztu duenei, ORMAK, S.L.ri eta Beasain Lantzen ematea, espedientearen interesatuak direlako, berarekiko aurkeztu daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez.*

II.- 2011ko irailaren 30eko erregistroko sarrera datarekin, Ainara Zaldua Zaldua Davilak eta Juan Vicente Panaderok, hitzarmenaren behin betiko onespenez erabakiaren aurka birjarpen helegitea aurkeztu zuten ondorengo adieraziz:

1.- Zazpiburrieta, 4 areako Arau Subsidiarioen aldaketa inpugnatu egin da eta aldaketa hori baliogabetzen bada, hitzarmena ere baliogabetu egingo litzateke.

2.- Arau Subsidiarioen behin betiko aldaketa, hitzarmenaren behin betiko onespenez batera eman denez, aldaketa horri ezin zaio Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen Bigarren eta Hirugarren Xedapen Iragankorrek aplikatu.

3.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 172. artikulua aplikatu behar da, urbanizazio obrak kontratazio publikoa arautzen duten irizpideetara doitzeko.

4.- Areako jabeek dagokien urbanizazio obrak ordaintzea eta Udalak ez luke kostu horretan parte hartu beharrik izango.

5.- Legea hausten da, publiko eta pribatuen arteko elkarlan-kontratua aplikatzean J. M. Iturriotz kalea desbideratzeko.

6.- Errekurtsioa aurkezten dutenak, argi-bisten zortasun-eskubidea dute, lehen erabilerako lizentzia emateko egindako planoen arabera eta etxebizitzaren salerosketa kontratuaren arabera, kontratu hori delako, hain zuzen ere, zortasun-eskubide horren titulua.

III.- 2011ko urriaren 27an, aurkeztutako errekurtsioarekiko ondorengo txosten juridikoa eman da:

1.- Orain arte ez da Udaletxean jaso Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren errekerimendua Arau Subsidiarioen aldaketari buruzko espedientea igortzeko eskatuz, behin betiko onespenerakiko demanda aurkeztu delako.

2.- Errekurritu duenaren argudioa bada ere, Arau Subsidiarioen aldaketa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea indarrean sartu ondoren egiteagatik, ez direla aplikagarriak aipatzen dituzten xedapen iragankorrak eta horren ondorioz beharrezkoa dela urbanizatzeko jarduketa programa egitea eta urbanizazio obrak kontratazio publikoaren irizpideak erabiliz kontratatzea, adierazi behar da egun egin den Arau Subsidiarioen aldaketa, igogailua aurreikusiz eta P6 eta P7 lursailetan egikaritzen ari diren babes ofizialeko etxebizitza eraikinean dauden lokal batzuk etxebizitzak izateko baimenduz, ez dela funtsezkoa eta horren ondorioz ez duela behar garapen planeamendurik eta ezta ere urbanizatzeko jarduketa programarik.

2011ko ekainaren 22ko txosten teknikoak dio, burutzeaz dauden eraikinak 2003ko apirilaren 29ko data duen Arau Subsidiarioen aldaketaren arabera egikaritutako direla. Egiturazko hirigintza-antolamendua eta antolamendu xehatuaren zehaztapenak alde aurretik finkatuta daude. Xehetasun Azterlanak egiten duena da antolamendu xehatuaren zehaztapenak egokitu. Bolumenen berrantolaketak gune publikoa berrantolatzea dakar eta horretarako lehendik onartuta eta zati batean exekutatuta dagoen Hirigintza Proiektua aldatu egin behar da.

3.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 172. artikuluan ezarritakoa, Administrazioaren kontratugintzari buruzko legeriaren aplikagarritasuna arautzen duena, urbanizatzeko jarduketa programaren egikaritzea esleitzeko prozedurari dagokio.

4.- Igogailuaren kostuan Udalak parte hartzearena, Administrazioaren eta partikularren artean izandako negoziazioan datza. Zuzenbidean onartutako dago, zilegi dela, legearen, moralaren eta ordena publikoaren aurka ez doan beste guztia hitzartu daitekeela. Aldaketarekin, eraikigarritasuna handitu balitz, ez zen oso logikoa izango Udalak zati batean igogailua ordaintzea, baina hitzarmena behin betirako onartzeko garaian adierazi zen moduan, eraikigarritasun lekualdaketa bat dago eta ez berarekiko igoera.

5.- Egia da bai, publiko eta pribatuen arteko elkarlan-kontratua, prestazioa konplexua den kasuetan aplikatzeko pentsatuta dagoela eta nahiz eta kalearen desbideraketa 2002ko abenduaren 20an sinatutako hitzarmenetik etorri, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Legean aurreikusita dauden kontratatze moduak erabili behar direla, nahiz eta horrek suposatu 2011ko ekainaren 22ko txosten teknikoaren arabera, estimatutako kostuak igotzeko arriskua egotea.

6.- Puntu honetan 2011ko ekainaren 29ko txostenean esandakoari eusten diot. Esan beharra dago ez duela inolako euskarri juridikorik adieraztea, Lehen Okupaziorako Baimena emateko egindako obra-bukaerako planoetan, P2 lursaila mehelin-horman leihoa azaltzen dela eta horren ondorioz, argi-bisten zortasuna, izan ere, Udalak baimenak ematen ditu, jabetza-eskubidearen baitan eta hirugarrenari kaltea ez egiteko baitan.

Ezta ere juridikoki defendagarria, etxebizitzaren salerosketa kontratua , argi-bisten zortasunaren titulua dela, hor ez delako eskubide hori jasotzen eta horren ondorioz ez dagoelako Jabetza Erregistroan inskribatuta.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio.

Lehenik. *Ainara Zaldua Davila eta Juan Vicente Panadero jaun-andreak aurkeztutako errekurtsua partzialki onartzea, hitzarmenaren laugarren eta bosgarren estipulazioetatik erretiratuz, J. M. Iturriotz kalearen desbideraketa-obrak ORMAK, S.L.U.en aldetik burutzearena eta Beasaingo Udalaren aldetik obrak horiek ordaintzearena.*

Bigarren. *Beste alegazioak ez onartzea, txosten juridikoaren arabera. Horrek esan nahi du, hitzarmena tinkoa bihurtzen dela, lehengo puntuan esandakoa kanpo utzita.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Txostenak esaten duena eta orain aipatzen dena erabat kontrajarriak dira. Txostenak dio inongo ordainketarik ez zaiola tokatzen eta ez zaiola ezer eman behar eta hori da gaur onartzea proposatzen dena. Nik ordea, pentsatzen dut hirigintzan aurkeztu zen txostena bozkatu behar dugula.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Udalak ez du parte hartzen ordainketetan, baizik eta ORMAKekin izan ditugun elkarrizketaren arabera, ORMAKek onartu du Udalak eskatutako balorazioaren emaitza. Udalak bitartekaritza eraman du ORMAK eta kaltetua akordio batetara iristeko.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Este es una tema que se ha visto varias veces. En este conflicto entre partes hemos defendido lo que había que defender. No se puede dejar a un ciudadano afectado por un tema tan serio, pero es cierto que en las reuniones que se han hecho aquí en un momento determinado se llega a un acuerdo verbal, donde los afectados dicen que aceptarán la tasación que el Ayuntamiento encargue a una empresa independiente. Se sigue negociando con la promotora, llega un momento en que disponemos de esa tasación, que difiere notablemente de la que han encargado los afectados. Eso nos deja en una situación delicada y yo reconozco que en la última reunión de urbanismo me abstuve porque no tenía claro cómo enfocar este asunto, pero después de recabar información entendemos y reconocemos que hay un vecino afectado por una intervención urbanística, pero cuando se firmó el convenio también se conocía esta afección, pero aún así se tira para adelante y es cuando se presenta el recurso. Los afectados tienen todo el derecho para seguir recurriendo, si es preciso en la vía judicial, pero también hay que tener en cuenta que por un conflicto de intereses privados no se puede paralizar toda una promoción de viviendas, además con la agravante que puede acarrear al propio Ayuntamiento por no cumplir lo que en su momento se ha firmado.

Culpas, pues seguramente de muchos, pero como ya está hecho no tiene remedio, con lo cual nuestra posición va a ser la del voto favorable, con independencia de que los ciudadanos afectados ejerciten su derecho por la vía que estimen pertinente.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Todos somos conocedores de lo hablado en la última comisión. Yo fui uno de los que pedí por escrito un compromiso por parte de ORMAK, y éste lo ha presentado, pero por la información que se nos pasó por e-mail por parte del técnico municipal, el escrito me genera dudas sobre su validez, y ello por dos cuestiones: una, la valoración previa que hace esta empresa teniendo en cuenta criterios de técnicos municipales, y la segunda, la de que existiendo una voluntad se pongan condiciones previas a las actuaciones a llevar a cabo por parte de los afectados. Si esta empresa muestra una voluntad para arreglar el problema ocasionado por quien sea, pero cuyas consecuencias son evidentes, el talante entiendo que debiera de ser otro. Es por ello que creo que lo que aquí se nos presenta puede quedar en papel mojado desde el momento en que se afirma que no hay ningún tipo de afección. Además de quedar en papel mojado el tono o el estilo e incluso las formas, me hacen pensar que nos encontramos en una situación en la que el grande se come al pequeño. Si hubiera voluntad, más que poner la condición de que por la parte afectada no se ejercite ninguna acción, debería de haber un ofrecimiento para la firma de un contrato privado, que pudiera servir para garantizar el cumplimiento por parte de la promotora de lo que ofrece para dar salida a este conflicto. Por lo tanto, a mi este escrito no me satisface para nada porque no garantiza su cumplimiento.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guri iruditzen zaigu udal teknikoek esaten dutenaz gain, iritzi politiko batek kalte bat eragin duela. Horregatik defendatzen dugu Udala izan dadila baita ere, kalte-ordain horretan parte hartu behar duena. Balorazio bat edo beste izango da, baina edozein izanda ere onartzen badugu onartu den bezala balorazioa egitea, izan da onartzen dugulako kalte bat dagoela. Kalte bat badago, baloratu behar duenak baloratu dezala eta Udalak parte hartu dezala hartu behar duen neurrian kalte hori ordaintzeko. Mahai honek hiru hanka ditu eta guk ezin dugu hartutako erabaki bati bizkarra eman eta esan txostenena dioen bezala ez dagokiola inolako kalte-ordainik. Guk, alde horretatik ez dugu babestuko. Nik uste nuen denok asumituta genuela kaltea egin zaiola eta horregatik erabaki zela balorazioa egitea. Egia da, Udalak enkargatutako balorazioaren eta beraienaren artean diferentzia izugarria dagoela eta guk ez gara jakitun esateko zein dagoen ondo. Orain aurkeztu den proposamenak espiritu hori erabat hausten du eta horregatik ez dugu babestuko.”

Alkate jaunak (BILDU): “En la comisión de urbanismo todos los partidos coincidimos en seguir adelante con la tasación del Ayuntamiento y se ha conseguido que ORMAK lo acepte, aunque los informes técnicos dicen que legalmente no corresponde, y nosotros vamos a garantizar que lo cumpla.”

Afektatua denak Alkate jaunari hitza eskatu dio eta eman ondoren, adierazi du orain dela urte bat baino gehiago berak eskatu zuela proposatzen den moduan ez eraikitzeko eta denbora egon dela irtenbide batetara iristeko negoziazioak izan balira. Bere ustetan eskubidea du baina berak dio kasu hauetan gertatzen dena dela handiak txikia zapaldu egiten duela. ORMAKekoek teilatuan leiho bat irekitzeko eskaintza egiten dutela dio baina hori ezeinezkoa dela aipatu du bizilagunek horretarako baimena emango ez dutelako.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (BILDU, PSE-EE/PSOE, NAHIA)

Aurkako botoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 2

Aldeko botoen kopurua aurkakoena baino txikiagoa denez ez da onartu proposamena.

3.- ARAU SUBSIDIARIOAK. Ondarre, 29 areako Arau Subsidiarioen aldaketari buruzko alegazioak ebaztea eta berriro ere hasierako onespena ematea.

Alkate jaunak hirigintza batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Ondarre, 29 areako Arau Subsidiarioen aldaketa. Alegazioak ebaztea eta berriro jendaurrean jartzea.

AURREKARIAK

1.- 2012ko martxoaren 15eko Plenoan Ondarre, 29 areako Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena eman ondoren, espedientea jendaurrean jarri zen hilabeteko epean GAOean, Berrian (2012-03-20) eta Diario Vascon (2012-03-17) iragarkiak argitaratuz. Horrezaz gain, eremuaren jabeei banakako jakinarazpena egin zitzaien.

2.- Aldi berean, Ur Agentziari eta Bide Azpiegitura Zuzendaritzari ere txostena emateko eskatu zitzaien.

3.- 2012-04-19an, Bide Azpiegiturako Zuzendaritzaren aldeko txostena jaso zen. 2012-05-24, Ur Agentziak txostena emateko eta jakinarazteko epea amaitzen zen, baina orain arte ez da inolako txostenik jaso. Dena dela, ekainaren 23ko 1/2006, ur Legearen 7. artikulua araber, isiltasun-administratiboa positiboa dela esan daiteke eta horren ondorioz, prozedurarekin jarraitu daiteke.

4.- Alegazioak aurkezteko epean ondorengoak aurkeztu dira:

- Jose Antonio Guerra Altuna jaunak, I.GUERRA, S.A.ren ordez aurkeztutakoa (2012-04-17 sarrera data).
- Jose Antonio Guerra Altuna jaunak, EUN SISTEMAS, S.L.ren ordez aurkeztutakoa (2012-04-20 sarrera data).

5.- I.GUERRA, S.A.k izapidatzen ari den Arau Subsidiarioen aldaketaren dokumentuan, G lursailarekin egin den bezala, bere jabetzakoa den E lursailarentzat eraikigarritasun handiagoa eskatuz, hain zuzen ere, lursail honetan dagoen pabiloiaren ondoan.

Gehikuntza honekin eremuan bete behar diren estandarrak betetzen ez badira, E lursailaren eraikigarritasun gehikuntzari preferentzia emateko eskatzen du G lursailaren gehikuntza eliminatuz.

6.- 2012ko maiatzaren 17an eta 29an, ondorengo txosten juridiko eta teknikoak eman ziren alegazioari buruz:

Txosten juridikoa:

“OINARRI JURIDIKOAK

Aurkeztutako alegazioari erantzuteko kontsiderazio juridikoak eta kontutan izan behar diren xehetasun legalak hauek dira:

- **Hirigintza eraikigarritasunari mugak:** *Euskal Herriko Lurzoruaren 77.5 artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duen premiazko neurriari buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 15.2 artikulua.*
- **Toki zuzkiduren estandarrak:** *aipatutako Dekretuaren 17,3,4,5 eta 3c) artikulua eta Euskal Herriko Lurzoruaren 79.3 artikulua.*

Horren ondorioz, konprobatu egin beharko da proposatzen duten gehikuntzarekin aipatutako parametroak betetzen diren ala ez eta horretarako txosten teknikoak eman beharko da. G eta E lursaileetan eraikigarritasun gehikuntza zilegi izanez geri, nahiz gehikuntza hori bakarrik E lursailean aurreikusten bada, G lursailarena eliminatuz, beharrezkoa izango litzateke aldaketak eragina duen lursailean jabeek dokumentu berri bat sinatzea, erkidegoak hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan parte artesari eta zuzkidura kargari dagokion diru kopurua handiagoa izango litzateke, E eraikigarritasun gehikuntza G lursailarena baino handiagoa delako.

Alegazioa onartzen bada, edozein aukera izanda ere, Arau Subsidiarioetako aldaketa dokumentuan, arau urbanistiko orokorrak eta partikularrak ere zuzendu egin beharko lirateke.

- **Prozedura:** *Euskal Herriko Lurzoruaren 90. 5 eta 6 artikulua (izapidetzea) eta 53,2 (hiri lurzoruaren, hirigintzaren egiturazko antolamendua).*

Edonola ere, Arau Subsidiarioetako aldaketa dokumentuak G eta E lursailen eraikigarritasun gehikuntza aurreikusten badu (zilegi delako) edo eraikigarritasun gehikuntza bakarrik E lursailean aurreikusten bada, hasierako hirigintzaren egiturazko antolamenduekiko funtsezko aldaketak direla irizten dut (hirigintza-eraikigarritasuna finkatzea nahiz tokiko sistemen oinarrizko ezaugarriak zehaztea) eta horren ondorioz Udalaren erabakia izan beharko litzateke, dokumentuari berriro hasierako onespena ematea eta behin-behineko onespena egin aurretik jendaurreko epe berria irekitzea.

Betidanik juridikoki sortu den arazoa, “funtsezko aldaketa” definitzearena izan da. Orokorki ulertu behar da funtsezko aldaketa izango dela aukeratutako planeamenduaren eredia edo estruktura orokorra aldatzea dela. Jurisprudentziak oso zorrotz jokatu du kontzeptu honekin, baina lehen salbuespena zena orain ez da horrela. Azaroaren 20ko Auzitegi Gorenaren sententziak, unitate egikaritze bakar batean araudia aldatzea “funtsezko aldaketa” kontsideratu du.

Alegazioan aipatzen diren irtenbideetako edozein onartzen dela ere, hasieran onartutako ordenazioa aldatzea ekarriko luke eta kontutan izanik beste alegazio bat ere aurkeztu dela, bigarren aldiz informazio publikoan jartzea justifikatuta dagoela iruditzen zait, nahiz eta horrek suposatzen izapideak errepikatzea eta prozedura luzatzea.”

Txosten teknikoak:

“E partzelan proposatutako eraikigarritasun handitzea honakoa da:

Oineko okupazioa: 825 m²

Sotoa: 330 m²

Sestra gaineko eraikigarritasuna: 1.278,75 m²

Ondarre 29. eremua eraikigarritasun handitzea duen Lurzoru hiritar finkatu gabea bezala sailkatuta dago eta bere kalifikazio orokorra medianeren arteko Jarduera Ekonomiko Produktiboen Zona da.

-Hirigintza- eraikigarritasunaren mugak betetzea:

Alegazioan proposatutako guztizko hirigintza-eraikigarritasuna 1.608,75 m²-koa da (330 m² + 1.278,75 m²). Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legeko 77.5 artikuluan (Hirigintza- eraikigarritasunaren mugak) ezarritako hirigintza-eraikigarritasunaren mugak bete beharko dira:

“5. Batez ere industrietarako eta hirugarren arlorako erabili behar diren hiri-lurzoru finkatugabeko areetan eta lurzoru urbanizagarriko sektoreetan, area edo sektorearen azalera guztiaren % 30 bete behar dute, gutxienez, eraikinek.”

Era berean ekainaren 3ko 105/2008 dekretua, 2/2006 Legea garatzen duenak 15.2 artikuluan dioena ere bete beharko da:

“2. Erabilera nagusi gisa industria-erabilera edo hirugarren sektoreko erabilera duten eremuen, sektoreen edo zonen kasuan, lurzati pribatiboek duten azaleraren baturaren, eta eremuaren edo sektorearen guztizko azaleraren arteko erlazioaren bidez egiaztatu ahal izango da 77.5 artikuluan aurreikusitako estandarra bete izana. Azalera hori kalkulatzearan, eremuan sartuta dauden eta araudi sektorialaren ezarpenagatik eraiki ezin diren lurzoru-azalera salbuetsi ahal izango dira.”

Beraz, eraikigarritasunaren gehikuntzarekin area osoaren azaleraren %30eko gutxienerako okupazioaren muga betetzen jarraitzen da, partzela pribatuen azalera Aldaketa Puntualeko dokumentuan bezala mantentzen baita.

- Tokiko zuzkiduren estandarrak betetzea:

Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legeko 79.3 artikuluko tokiko sistemen sareko zuzkidura eta ekipamenduen gutxienerako estandarrak bete beharko dira:

“3. Erabilera nagusia industrierakoa edo hirugarren sektorerakoa duten lurzoru urbanizagarriko sektoreei dagokienez, sektore horien antolamendu xehatua gutxienerako lursail batzuk gorde behar dira tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoetarako. Sektorearen azalera guztiaren % 12 izango da gutxienerako hori, eta erreserba horren bi heren berdeguneetarako erabili beharko da.”

Eta ekainaren 3ko 105/2008 dekretuko, 2/2006 Legea garatzen dueneko 17.3, 17,4 eta 17.5 artikulukoak:

“3. Finkatu gabeko hiri-lurzoruan, erabilera nagusia industria-erabilera edo hirugarren sektoreko erabilera denean, antolamendu xehatuak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 79.3 artikuluan ezarritako lursail-erreserbak ezarri beharko ditu gutxienez toki-zuzkiduretarako.

4. Esleitutako hirigintza-eraikigarritasunak erabilera bereizgarri berarekin alde aurretik gauzatutakoarekiko edo, halakorik izan ezean, antolamenduak alde aurretik esleitutako hirigintza-eraikigarritasunarekiko izan duen gehikuntzaren gainean kalkulatu dira finkatu gabeko hiri-lurzoruko toki-zuzkiduren estandarrak.

5. Ere mu horretan gauzatu ahal izateko erabateko ezintasun fisikoaren kasuan edo ezintasun fisiko partzialaren kasuan, plangintzak ez-betetze hori ekonomikoki konpentsatzea egokitzat aurreikusi ahalko du, betiere arrazoituz, Dekretu honen 3. artikuluan araututako moduan eta ondorioetarako.”

Dokumentuak eraikigarritasuna handitzeagatik Udalari egin beharreko %15eko lagapena aurreikusten du (dirutan), eta baita legeak eskatzen dituen zuzkiduren monetarizazioa ere, bere gauzate fisikoaren ezintasuna dela eta, zeina eraikigarritasun haztatu edo ponderatuaren %5ekoa izango den (105/2008 Dekretuko 3. artikulua betetzearen). Ondorioz, portzentaia hauek kalkulaterakoan guztizko eraikigarritasun haztatu edo ponderatua eduki beharko da kontutan, E partzela n proposatutako eraikigarritasun haztau edo ponderatuaren handitzea ere bai, 1.608,75 m²-ko hirigintza-eraikigarritasunari dagokiona.

-JE-1 jarduera ekonomiko produktibo isolatuei aplikatu beharreko balditza bereziak betetzea:

Indarrean dauden Beasaingo Planeamenduko AASSen Ondarre 29. Areako koadro arauemailearen arabera, E partzela Partzela Isolatuko Jarduera Ekonomiko Produktiboei dagokie. Ondorioz, kalifikazio xahakatu hau mantentzeko, Beasaingo Planeamenduko AASSetako 78.4 artikulua bete behar du:

“- 1-JE lursailetan behar beste espazio libre antolatu beharko dira; hain zuzen, zamatan jarduerak, ibilgailuen maniobrak eta langileen nahiz kanpokoan aparkamenduak lursailaren barnean egiteko.

- Hala, aparkatzeko bi plaza ezarriko dira eraikitako 100 m²-ko azalerako —ez dira sotoko oinak kontuan hartuko—. Sotoko lokalak, aldiz, erabili ahal izango dira horretarako.”

Beraz, zamatan jarduera, ibilgailuen maniobra eta aparkamenduak partzelaren barruan egiteko adina espazio libre egokiren antolaketa justifikatu beharko da, eta horretarako 26 aparkaleku plaza gaitu beharko dira (1278,75x2/100 = 25,575 plaza).

Aldaketa Puntualeko Dokumentuan partzela bakoitzaren jarduera ekonomiko mota zehaztu beharko da, JE-1 jarduera ekonomiko produktibo isolatua edo JE-2 mehelin arteko jarduera ekonomiko produktiboa; hau da, indarrean dauden AASS-etan bezala mantenduko den edo beste era batera izendatuko diren adierazi beharko da.

Guzti honegatik, alegazioa onartua izan daitekela deritzot aurretik aipatutako baldintzak betetzekotan. Hala ere, eskatutako eraikuntza gehikuntzak hasieran aurrikusitako egiturazko antolamenduaren funtsezko aldaketa bat deritzenez Udalak hasierako onespen berri bat hitzartu beharko du eta jendaurrean jartzeko epe berri bat ireki.”

7.- EUN SISTEMAS, S.L.ren alegazioak ondorengo dio:

Lehenik

- Ondarre, 29 area hiri-lurzoru modura sailkatutako lurzorua da, nahiz eta F2 lursaila eraikita ez egon eta hori ez da kontutan izan orain proposatzen den aldaketan.
- Bere garaian eremuaren jabeek dirutza handia ordaindu zuten Udalak rezeptionatu zituen hirigintza obrak egiteko.
- Aldaketak, hiri-lurzoru finkatugabea inkorporatzen du, C, G eta H lursailleekiko hirigintza eraikigarritasuna handitzeagatik.

Bigarren

- F2 lursailak eraikigarritasun adina du G eta H lursaileen jabeek dituzten beharrei aurre egiteko eta F2 lursaila erabiliko balitz, zuzkidura estandarrak handitu beharrik eta zuzkidura-karga gauzatu beharrik ez litzateke egongo.
- C lursailaren kasuan, planeamenduaren lerroakadak kontutan izan gabe eraikitako eraikina erregularitzazean datza. Hori dela eta dagokion espediente zigortzailea izapidetu behar zen. Gainera esan, arau-hauste horrek helburu pribatuentzat bide publikoa erabiltzea ekarri duela.

Beraz, alegazioak onartzea eta dokumentuaren behin-behineko onespina ez ematea eskatzen dute.

8.- 2012ko maiatzaren 17an eta 29an, ondorengo txosten juridiko eta teknikoak eman ziren alegazioari buruz:

Txosten juridikoa:

“OINARRI JURIDIKOAK

I.- Euskal Herriko Lurzoruaren 11,3b) 2 artikulua adierazten du hiri-lurzoru finkatugabearen sartuko direla hirigintza-antolamenduak lurzoru-mota hori atxikitako lursailak, lehendik zegoena baino hirigintza-eraikigarritasun haztatu handiagoa esleitzen dionean. Horrek logika guztia du Konstituzioaren 47. eta Euskal Herriko Lurzoruaren 27.1 artikuluen arabera, erkidegoak hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan parte artesa hartzeko.

Gainera Euskal Herriko Lurzoruaren 137. artikuluan aurreikusitako zuzkidura-jarduketara da, hain zuzen ere, hirigintza-eraikigarritasuna handitzeagatik, hiri-lurzoru finkatugabearen zuzkidura-karga gauzatzera zuzendutakoa.

Euskal Herriko Lurzoruaren 77.5 artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duen premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 12.4 artikulua honela dio: “zuzkidura jardunetan, komunitateak hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan duen partaidetza bere balioa esku-dirutan ordaintzearekin ordezkatzeko ahal izango da.”

Dirutan ordaintzeko aukera bera aurreikusita dago, aipatutako Dekretuaren 3c) artikuluan finkatu gabeko hirilurzoru kasuan zuzkidura-karga kentzeari dionean: “ordezko kalte-ordainaren zenbatekoa guztiz edo zati batean gauzatea fisikoki ezinezkoa bada, artikulua honetan xedatu bezala kalkulatzeko eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzaren % 5 izango da zenbateko horren gehieneko muga.”

Hori dela eta afektatutako lursailen jabeek dokumentu bat aurkeztu dute lursail berriek izango duten eraikigarritasun gehikuntzaren proportzioaren arabera, aipatutako kopuruen ordainketa onartuz.

Horrez gain, dokumentuan ere aurreikusten dira, hasierako onespina-erabakian (bere garaian txostena eman zen) aipatzen diren toki zuzkidurentzako terreneen erreserba.

Badirudi, eremuaren azalera gehitzeak ez duela suposatzen urbanizazio obra berririk, bakarrik eustorma eraikitzea. Zentzu honetan alegazioa aurkeztu duenak arrazoia duela esango nuke, zeren eta hiri-lurzoru modura sailkatutako lurzoruan egindako urbanizazio obrak izango dira finkatu gabeko hirilurzoruari zerbitzua emango dienak. Beraz, urbanizazio zama arearen jabeen artean berriro banatzea dagokio errepartzelazio proiektua aldatzen denean.

F2 lursaila eraikita ez dagoelako, alegazioa aurkezten duenaren iritziz, Arau Subsidiarioak aldatzeko arrazoirik ez egoteari buruz esan, argudio hori diskrezionala dela, zeren eta jarduera ekonomiko desberdinen produkzio kateak edo beharrak eskatu dezake aprobetxamendu gehikuntza egun dauden eraikinen aldamenean lokalizatzea. Dena dela, diskrezionaltasun izaera hori dela eta, xehetasun hau Korporazioaren baitan geratzen da.

II.- C lursailaren obrak legeztatzea.

Puntu honetan, txosten teknikoa da kontutan izan behar dena.

Hirigintza arau-haustea dela egiaztatzen bada, Udalak espediente zigortzaileari hasiera emateko aukera du, Lurzoruaren Legearen 217,2e) artikulua 3 ematen dion ikuskatze eginkizunak erabiliz.

ONDORIOAK

Beraz:

1.- Alegazioa onartu daiteke xehetasun hauei buruz:

- Areako jabeen artean urbanizazio kargak berriro banatzeko.
- Udalaren ahalmena espediente zigortzaileari hasiera emateko.

2.- Beste alegazioak ez dira onartzen.

3.- Arau Subsidiarioak aldatzeko arrazoirik ez egoteari buruz, eremuan eraikigarritasuna exekutatu gabe egoteagatik, Korporazioaren baitan geratzen da.”

Txosten teknikoa:

“-Proposatutako eraikigarritasun gehikuntza:

Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legeko 11.3.b.2 artikulua eraikigarritasun gehikuntzagatik finkatugabeko lurzoru hiritarraren kategoria ezartzen du lurzoru hiritarraren sailkapenaren barruan. Lege honek berak, bere 137, artikuluan zuzkidura-jarduketa definitzen du jarduketa moten artean:

“Lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira zuzkidura-jarduketatzat: hirigintza-eraikigarritasuna handitzeagatik, hiri-lurzoru finkatugabearen zuzkidura-karga gauzatzera zuzendutako jarduketak.”

Ekainaren 3ko 105/2008 dekretuak, 2/2006 Legea garatzen duenak, bere 12.4 eta 3.c artikuluetan zera dio:

12.4. “Zuzkidura-jardunetan, komunitateak hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan duen partaidetza bere balioa esku-dirutan ordaintzearekin ordezkatu ahal izango da.”

3.c. “Ordezko kalte-ordainaren zenbatekoa guztiz edo zati batean gauzatzea fisikoki ezinezkoa bada, artikulua honetan xedatu bezala kalkulaturako eraikigarritasun haztatuaren gehikuntzaren % 5 izango da zenbateko horren gehieneko muga.”

Beraz, aurrikusitako eraikigarritasun gehikuntzak Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Lege eta hau garatzen duen Ekainaren 3ko 105/2008 dekretua betetzen ditu.

-C partzelako obralaren legeztatpena:

2009ko maiatzaren 11an 29. Areako 29.3 orubearen Xehetasun azterlana onartu zen behin-betiko; bertan lantegiaren barne-funtzionamendua hobetzeko alineazioen aldaketa bat proposatzen zen. Dokumentuaren helburua 29.3 eraikiko den eraikinen fatxada nagusia ondokoarekin alineatzea da,

azalera eta neurri berdinak mantenduz. Fatxada nagusiaren parean aurrikusitako 6 aparkaleku plazak eraikinaren atzeko fatxadara eramatea ere proposatzen da, hauetara lantegiko atzekaldeko bide pribatutik iritsiz.

2009ko apirilaren 24an Miguel Angel Gonzalez Larrea jaunak, Talleres Mecánicos Arri S. Coop-en izenean 29 Areako S.29.3 orubeko lantegi eta bulegoen Handitze Proiektua aurkeztu zuen. Maiatzaren 4an aldeko txosten teknikoak igorri zen dokumentazio osagarria aurkezteko balditzapean, zeina geroago aurkeztu zen. Gero dokumentazio osagarri horri aldeko txostena igorri zitzaion eta obra lizentzia eman zitzaion 2009ko ekainaren 1ean.

Espedientea aztertu eta 2012ko maiatzaren 16an bertaratzea egin ostean eraikinak indarrean dauden AASSek, 29.3 orubearen Xehetasun Azterlanak eta aurkeztutako Handitze Proiektuak ezartzen duten baino oineko okupazio eta azalera eraiki handiagoa duela baieztatzen da eta ez du betetzen partzelaren barruan bete beharreko 8 aparkalekuen seinalizazioarekin. Gainera, oineko okupazio azalera Aldaketa Puntualeko dokumentuan jasotakoa baino handiagoa da.

Eraikinak fatxada nagusia eta atzekoa ondoko eraikinarekin lerrokatzen ditu, dagozkion aparkaleku plazak ezabatuz, eta baita zamalan jarduerarako, ibilgailuen maniobrarako eta aparkalekurako espazio librea ere, zeinak indarrean dauden Beasaingo Planeamenduko AASS-etako 79.4 artikuluan zehazten diren; hauek jarduera ekonomiko produktibo isolatuei dagozkienak dira (JE-1).

Guzti honegatik, alegazioa partzialki onartua izan daitekela deritzot honako aspektu hauetan:

-Gauzatutako oineko okupazio azalera eta azalera eraikia Aldaketa Puntualeko Dokumentuak baino handiagoak direla kontutan izanaz, azalera hauek zuzendu egin beharko dira aldaketa puntualeko dokumentuak gauzatutako azalera jasoaz eta Beasaingo Planeamenduko AASS-etako 79.4 artikuluko zamalan jarduerarako, ibilgailuen maniobrarako eta lantegiko nahiz kanpoko aparkalekurako dagokion espazio librearen baldintzak bete beharko ditu; (JE-2) jarduera ekonomiko produktibo isolatuetako partzei dagozkienak, hain zuzen ere.

-Hirigintzako arau-haustea dagoela baieztatzen da. Udalak espediente zigortzailea ireki beharko luke.

-Gainontzeko adierazpenei dagokienez txosten juridikoari lotzen natzaio .

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak ondorengo erabaki-proposamena egiten dio Udalbatza Osoari:

Lehenik. I.GUERRA, S.A.ren alegazioa ebatzea, baldintza hauekin onartzuz:

- Arau Subsidiarioen aldaketa dokumentuan, eraikigarritasun haztatu gehikuntzari dagokion (C, E, G eta H lursailak) erkidegoak hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan parte artesari eta zuzkidura kargari dagokion diru kopurua aurreikustea, kontutan izanik E lursailaren eraikigarritasun gehikuntza, 1.608,75 m²koa dela. Era berean afektatutako lursailen jabeek konpromiso hori azaltzen duen dokumentu ere aurkeztu egin beharko dute.
- Beraz, zamalan jarduera, ibilgailuen maniobra eta aparkamenduak partzelaren barruan egiteko adina espazio libre egokiren antolaketa justifikatu beharko da, eta horretarako 26 aparkaleku plaza gaitu beharko dira (1278,75x2/100 = 25,575 plaza).

Bigarren. EUN SISTEMAS, S.L.ren alegazioa ebatzea, zentzu honetan:

- Alegazioa onartzea, txosten juridikoak dioen moduan eremuko jabeen artean urbanizazio zamak berbanatzeari buruz.
- Gauzatutako oineko okupazio azalera eta azalera eraikia Aldaketa Puntualeko Dokumentukoak baino handiagoak direla kontutan izanaz, azalera hauek, behin-behineko onespenerako, zuzendu egin beharko dira aldaketa puntualeko dokumentuak gauzatutako azalerak jasoaz eta Beasaingo Planeamenduko AASS-etako 79.4 artikuluko zamlan jarduerarako, ibilgailuen maniobrarako eta lantegiko nahiz kanpoko aparkalekurako dagokion espazio librearen baldintzak bete beharko ditu; (JE-2) jarduera ekonomiko produktibo isolatuetako partzelei dagozkienak, hain zuzen ere.
- Hirigintzako arau-haustea dagoela baieztatzen da.
- Alegazioaren beste adierazpenak deuseztatzea, txosten juridiko eta teknikoan arabera.

Hirugarren. Aldaketa dokumentuan ondorengoa jaso behar da:

- Aldaketa Puntualeko Dokumentuan partzela bakoitzaren jarduera ekonomiko mota zehaztu beharko da, JE-1 jarduera ekonomiko produktibo isolatua edo JE-2 mehelin arteko jarduera ekonomiko produktiboa; hau da, indarrean dauden AASS-etan bezala mantenduko den edo beste era batera izendatuko diren adierazi beharko da.
- Arau Subsidiarioen aldaketa dokumentuan, arau urbanístiko orokorrak eta partikularrak ere zuzendu egin beharko dira.

Laugarren. Dokumentuari berriro ere hasierako onespina ematea eta jendaurreko epe berri bat irekitzea, I.GUERRA, S.A.ren alegazioa onartzeak funtsezko aldaketa suposatzen duelako, hasieran aurreikusitako estruktura-ordenazioan.

Bosgarren. Behin-behineko onespenerako dokumentu berri bat aurkeztuko da, 2012ko martxoaren 15eko hasierako onspeneko dokumentuaren baldintzak eta alegazioen onarpenak suposatzen dituen xehetasunak jasoz.

Seigarren. Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, GAOean, Diario Vascon eta Berrian iragarkiak argitaratuz eta prozeduran interesatuak direnei banakako jakinarazpenak eginez.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- UDAL ORDENANTZAK:

a.- Hileta zibilak baimendu eta egitea arautzen duen ordenantzari hasierako onespina ematea.

Alkate jaunak zerbitzu, landa ingurunea eta ingurumenaren batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Egun, gure ordenamendu juridikoak akonfesionaltasuna bermatzeaz gain, norbanako eta komunitateen askatasun ideologiko, erlijiozko eta gurtzakoa (horretarako adierazpenak errespetatuz) bermatu behar du, legeak babestutako ordena publikoa mantentzeko beharrezkoa den muga bakarrarekin.

Halaber, ezaguna da gure gizartean dagoen aniztasun ideologiko, erlijiozko eta kulturala. Gizarte anitza da, etengabe aldatzean ari dena bere usadio eta gizarte-ekintzen adierazpenari dagokionez.

Hileta zibilak gizarte normalizazioan urrats bat gehiago dira, igarotze-errituak erlijio-konnotazioetatik urrun modu zibil eta laikoan ospatzea eskatzen dutenentzat.

Gure gizartean bizi diren erlijio ezberdinek beren defuntuak agurtzeko ekitaldi liturgikoak egiteko berezko leku eta tenpluak dituzten moduan, Udal honen borondatea da mota horretako ospakizunetarako guneak herritarren esku jartzea.

Horrenbestez, ordenantza honekin arautzen da gure herriko gizarte zibila osatzen duten senitarteko, lagun, erakunde eta entitateek beren defuntuentzat, pertsonari agur esateko, egin nahi dituzten omenaldi eta agur-ekitaldien baimen eta ospakizuna.

Beraz, Zerbitzuak , Landa Ingurunea eta Ingurumena Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo proposamena egiten zaio:

Lehena: *Onartzea Beasainen hileta zibilak arautu eta baimentzen duen ordenantza.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia onartu da:

Lehenik. Jarraian transkribatzen den ordenantzari hasierako onespina ematea.

Bigarren. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 30 eguneko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartuta geldituko da.

**BEASAINEN HILETA ZIBILAK BAIMENDU ETA EGITEA ARAUTZEN DUEN
ORDENANTZA**

SARRERA

Egun, gure ordenamendu juridikoak akonfesionaltasuna bermatzeaz gain, norbanako eta komunitateen askatasun ideologiko, erlijiozko eta gurtzakoa (horretarako adierazpenak errespetatuz) bermatu behar du, legeak babestutako ordena publikoa mantentzeko beharrezkoa den muga bakarrarekin.

Halaber, ezaguna da gure gizartean dagoen aniztasun ideologiko, erlijiozko eta kulturala. Gizarte anitza da, etengabe aldatzean ari dena bere usadio eta gizarte-ekintzen adierazpenari dagokionez.

Hileta zibilak gizarte normalizazioan urrats bat gehiago dira, igarotze-errituak erlijio-konnotazioetatik urrun modu zibil eta laikoan ospatzea eskatzen dutenentzat.

Gure gizartean bizi diren erlijio ezberdinek beren defuntuak agurtzeko ekitaldi liturgikoak egiteko berezko leku eta tenpluak dituzten moduan, Udal honen borondatea da mota horretako ospakizunetarako guneak herritarren esku jartzea.

Horrenbestez, ordenantza honekin arautzen da gure herriko gizarte zibila osatzen duten senitarteko, lagun, erakunde eta entitateek beren defuntuentzat, pertsonari agur esateko, egin nahi dituzten omenaldi eta agur-ekitaldien baimen eta ospakizuna.

I. KAPITULUA PROZEDURAREN HASTAPENA

1. artikulua

Ordenantza honen helburua da Beasaingo Udalaren udal-barrutian gertatzen diren heriotzetarako hileta zibilak egiteko Igartzako Monumentu multzoan aurreikusitako lokalen (Lotura-aretoak) baimen eta erabilerak arautzea.

2. artikulua

Alkateak edo zinegotzi edota hura ordeztzen duen funtzionarioak hileta zibiletarako gordetzen diren espazioen (Lotura-aretoak) erabilera baimen dezake. Horretarako, aldez aurretik, eskaera Beasaingo Udalaren erregistrora bideratzen duen senide edo pertsonak horri dagokion dokumentazioa igorri beharko du.

3. artikulua

Hileta zibilak egiteko eskaerak Alkate Txit Jaunari zuzendu beharko dira eta Beasaingo Udalean aurkeztu beharko dira Herri administrazioen Araubide Juridikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean baimendutako bideetako bat erabiliz.

Hileta zibilak egiteko eskaeren izapideak egoerak eskatzen duen berehalakotasun-printzipioaren arabera gauzatuko dira, eskumeneko pertsonari helaraziko zaizkiolarik ebazpena eman dezan.

4. artikulua

Egiten diren eskaeretan barneratu beharko dira:

- a) *Ospakizunaren baimena eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak, helbidea eta identifikazioa.*
- b) *Zendutako pertsonaren izen-abizenak.*
- c) *Heriotza-ziurtagiria.*
- d) *Hileta zibila egiteko lehenesten den egun eta ordua adierazi beharko da eskaeran.*

e) Udala, ahal duen neurrian, eskatzaileek adierazitako data eta eguna errespetatzen saiatuko da, eskatzaileek aurkeztutako eskarien hurrenkera aintzat hartuz. Hurrenkera hori aldatu egin daiteke kasu berezietan, betiere, aldaketa hori argudiatuz.

f) Eskariaren leku eta data.

g) Eskatzailearen sinadura eta bere nortasuna egiaztatzen duen agiria, horretarako edozein bide erabiliz.

h) Eskaerarekin batera, udal-eraikinak erabiltzeagatik finkatzen den tasa arautzen duen ordenantza fiskalean ezartzen den ordainketa egin izanaren agiria atxiki beharko da.

i) Ekitaldiaren eta erabiliko den materialaren deskribapen laburra.

5. artikulua

Eskaeraren zuzenketa eta hobekuntza. Eskaeran 4. artikuluan adierazten diren baldintzak betetzen ez badira, interesdunari jakinaraziko zaio ahalik eta lasterren, alde aurretik edo ondoren, gabezia zuzendu edo dagozkion dokumentuak atxiki ditzan.

II. KAPITULUA BIDERATZEA

6. artikulua

Hileta zibila ospatzeko egun eta ordua Alkateak, zinegotziak edo hura ordeztzen duen funtzionarioak finkatuko du, alde aurretik kudeaketaz arduratzen den sailak egindako espedientearen oinarrituta.

Hori guztiori eskaerak aurkezteko hurrenkera aintzat hartuz eta, era berean, ahal den neurrian, eskatzaile bakoitzak adierazitako lehentasunezko hurrenkera errespetatuz.

7. artikulua

Eskaera ikusirik, Alkateak edo zinegotziak edo hura ordeztzen duen funtzionarioak hileta zibila ospatzeko udaletxeko lokala zehaztuko du. Lokal hori, eskuarki, Lotura-aretoa izango da. Kasu berezietan beste lokal batzuk erabili ahal izango dira.

8. artikulua

Hileta zibilak ezin izango dira gorpua aurrean dela egin, hala ere hildakoaren errautsak dituen kutxa bertan dela egin ahal izango dira.

9. artikulua

Hileta zibilak astelehenetik igandera egingo dira, horretarako beharrezkoak diren udal-baliabideak gaituko direlarik.

10. artikulua

Hileta zibilak egiteko ordutegia 10-14 eta 17-20 orduen artean finkatzen da. Ekitaldiaren iraupena gehienez hirurogei minutukoa izango da.

III. KAPITULUA ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

11. artikulua

Horretarako bideratzen diren aretoak egoera onean mantenduko direla bermatze aldera, ekitaldira bertaraten direnek ezingo dute lokalaren barnean hura kaltetu edo

hondatzea eragin dezakeen ekintzarik egin, udal-eraikin eta –lokalen lagapena arautzen duen ordenantzan ezarritakoaren kalterik gabe.

12. artikulua

Ekitaldia burutzeko aretoa ekitaldiaren seriotasuna bermatzeko moduan egokituko da. Dena den, senitarteko edo lagunek era berezian hornitu edo apaindu nahi dutenean, udal-arduradunari jakinarazi beharko diote behar bezala jarduteko beste denbora emanez, betiere, lekuaren harmonia eta ezaugarriak errespetatuz eta interesdunari kontura izanik horren ondorioz sor daitezkeen gastuak. Ekitaldia burutzeko zerbitzu osagarriak interesdunak emango ditu eta bere konturakoak izango dira. Hala ere, Udalak horiek gainbegiratuko ditu.

13. artikulua

Ekitaldiaren edukia ezingo da laidogarria izan eta ezingo da beste pertsona baten ideia edo printzipioen aurka egin.

14. artikulua

Ordenantza honetan aurreikusten ez den guztirako, udal-arduradunen argibideei jarraitu beharko zaie.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean izango da indarrean. Hala, indarraldi hori mantenduko da hura aldatu edo bertan behera uztea erabakitzen den arte. Erabaki hori Udalbatzak hartu beharko du.”

b.- Udal herrian kolunbario zerbitzuaren erabilera arautzeko ordenantzari hasierako onespena ematea.

Alkate jaunak zerbitzu, landa ingurunea eta ingurumenaren batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gizartean ohitura aldaketa nabarmena ematen ari da erraustearen alde, gaur egun herrian gertatzen diren hildakoen %60a erraustu egiten da. Honek suposatzen du hilerriak eskaintzen dituen zerbitzuen eguneratu beharra.

Ondorioz, hilerriko gune batean behar den azpiegitura sortzen ari da kolunbario zerbitzua eskaintzeko. Bertan 15 urterako errauts kaxak gorde ahal izango dira

Horrenbestez, ordenantza honekin arautzen da Beasaingo Udal hilerrian kolunbarioen erabilera eta okupazioa.

Beraz, Zerbitzuak , Landa Ingurunea eta Ingurumena Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo proposamena egiten zaio:

Lehen: *Onartzea Beasaingo Udal hilerrian kolunbario zerbitzua arautzen duen Ordenantza.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia onartu da:

Lehenik. Jarraian transkribatzen den ordenantzari hasierako onespena ematea.

Bigarren. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 30 eguneko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartuta geldituko da.

*Beasaingo Udal hilerrian kolunbario zerbitzua arautzeko
ordenantza.*

1. artikulua. Xedea.

Beasaingo Udal hilerrian kolunbarioen erabilera eta okupazioa arautzea da Ordenantzaren xedea.

2. artikulua. Kontzeptua.

Erraustutako hilotzaren edo gorpuzkinen errauts-kutxatila gordetzeko lekuari esaten zaio kolunbario.

3. artikulua. Kokapena.

Kolunbarioak udal hilerrian daude eta bakoitzak errauts-kutxatila bakarra gorde dezake. Era berean, kutxatilak hilotz bakar baten edo horren gorpuzkinen errautsak bakarrik gorde ahal izango ditu; edota hilobi beretik ateratako gorpuzkinenak.

4. artikulua. Helburua.

Honako pertsona hauen errautsak gorde ahal izango dira: udalerrian erroldatu, jaio edota lotura izan dutenenak, aurretik udalari eskatu eta honek aldeko ebazpena eman badu.

Udal honetako hilerrian senitartekoak ehortzita dituztenenak, baldin eta hauek lehen gradukoak badira (ama, aita, seme-alabak): hilobiaren emakida administratiboa bukatzen denean, edo gorpua hobitik ateratzen denean, errautsak utzi ahal izango dituzte; aurretik eskatu, eta gorpuzkinak erraustu, ondoren.

5. artikulua: Eskariak.

Kolunbarioaren eskatzaileak pertsona fisikoa izan behar du, eta Udaleko Erregistroan honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du, eskari-inprimakiarekin batera:

- Edozein errausketa-labetan erraustu izana egiaztatzen duen dokumentua.

- Aurretik lurperatuak izan ez diren hilotzen errauts-kutxatila baldin badira, Erregistro Zibileko heriotza-inskripzioa.

- Udal-tasa autolikidatu izanaren agiria.

Udalak eskaria aztertu ondoren dagokion erabakia hartuko du.

Udalak eskaria onartu eta aldeko erabakiaren berri eman ondoren, gehienez hamabost eguneko epean gorde beharko da errauts-kutxatila kolunbarioan. Hala egiten ez bada, bestelako tramiterik gabe, eskatzaileak emakidari uko egin diola ulertuko du Udalak.

Aldeko erabakiak emakidadunaren izena eta abizenak, kolunbario-zenbakia eta emakidaren data eta epea jaso beharko ditu, gutxienez.

Dena den, erabakia kontrakoa balitz, ordaindutako tasa bueltatu egingo zaio eskatzaileari.

Emakida jaso ostean, interesdunak hilerrira joan beharko du bertako lan-ordutegiaren barruan. Udalaren aldeko erabakiari dagokion dokumentua erakutsi eta errauts-kutxatila hilerriko langileei eman beharko die, eurek gordeko baitute dagokion kolunbarioan.

Ezingo da inolaz ere kolunbarioko aterik ireki emakida-epea amaitu arte. Emakidadunak errauts-kutxatila aldeztu aurretik erretiratu nahi badu, eskaria aurkeztu beharko dio Udalari, eta horrek onartu ondoren, emakida bukatutzat hartuko da.

6. artikulua. Emakida-epea.

Kolunbario-unitatea erabiltzeko epea (behin behineko emakida) hamar urtekoa izango da, baimenaren jakinarazpena egiten den egunetik aurrera.

Interesdunari dagozkion arrazoiak medio epea amaitu aurretik etengo balitz emakida, pertsona horri ez zaio ordaindutako zenbatekoa bueltatuko, ez osorik ez zatirik, ez baitu horretarako eskubiderik izango.

Emakida-epea amaitu eta hilabetera inork ez badu errauts-kutxatila jasotzeko eskatu, Udalak hezurtoki komunera eramango du.

Emakida-epea, behin bakarrik, beste hamar urtez luzatu ahal izango da, epe hori amaitu baino hilabete lehenago, gutxienez, eskaria egin eta une horretan indarrean den tasa ordainduz gero.

Emakida-epea ez dute luzatu ahal izango aurretik ehortzitako gorpuzkinak dituzten errauts-kutxatila baldin, udal hilerrikoak zein beste leku batekoak izan.

Udalak eskaria aztertu ondoren dagokion erabakia hartuko du. Udalak emakida-epea luzatzea ukatu dezake baldin eta hurrengo urteetako beharrei erantzuteko beste toki ez dagoela uste badu.

7. artikulua. Tasak.

Kolunbarioa erabili ahal izateko, Hilerriko Zerbitzu Publikoak eskaini edo Jarduera Administrazioak burutzeagatiko Tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalaren eranskinean

urtero xedatzen den tasa ordaindu beharko da.

8. artikulua. Errauste-kutxatilak gordetzeko era.

Errauste-kutxatilak modu antolatuan gordeko dira kolunbarioetan, hau da, ezkerretik eskuinera eta behetik gora. Beraz, ezingo da hurrengo ilarako kolunbariorik erabili aurrekoa erabat beteta egon arte.

Emakida luzatzen denean, errautsak dauden lekuan mantenduko dira emakida amaitu arte.

9. artikulua. Kolunbarioen erregistroa.

Udalak kolunbarioen erregistroa izango du, eta bertan eskatzailearen izena eta abizenak, erraustuaren izena eta abizenak, kolunbario-zenbakia, emakida-data eta epea jasoko dira, gutxienez.

10. artikulua. Kolunbarioen ezaugarriak eta apaingarriak.

Kolunbarioek honako neurri, erabilgarri, hauek izango dituzte: Zabaleran 20 cm, altueran 31 cm, eta sakoneran beste 20 cm.

Inskripzio elementuak denak berdinak izango dira eta udalak erabilera honetarako araututako eredia jarraituz eginak izango dira. Osagai honen kostua eskatzailearen gain joango da. Era berean gauzatzeko unean, udalak baimendutako hornitzaileekin, izan behar diren hartu-emanak ere.

Osagaia egin ondoren, udalaren eskuetan utziko da; honek jarri ahal izateko, guzti hau emakidaren ebazpena jaso eta gehienez ere hilabeteko epean.

Plaka horretan hildakoaren izena eta abizenak edo ezizena azalduko dira, eta horrekin batera heriotzaren data edo jaiotza- eta heriotza-datak, eskatzaileak eskaria egitean aukeratutakoaren arabera.

11. artikulua. Kalteak.

Hilerriko esparruaren zaintza egingo du Beasaingo Udalak, baina Udalak ez du bere gain hartzen errauste-kutxatilar edota plakari hirugarrenek egindako lapurreta edo kalteen erantzukizunik. Era berean, ez du bere gain hartzen naturak (haizatzak, ...) eragindako kalteen erantzukizunik.

12. artikulua. Ordenantzaren interpretazioa.

Alkateak eskumena izango du honako Ordenantza hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren arauak emateko, eta baita ere Ordenantzaren interpretazioan sortu litezkeen zalantzak erabakitzeko.

5.- TASAK. “Lotura aretoa” eta “Kolunbario zerbitzua” erabiltzeagatiko tasen onespena.

Alkatea jaunak, Ogasun Batzordearen ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Zerbitzu Batzordeak 2012ko maiatzaren 8an egindako bileran, Hileta Zibilak egiteko unean “Lotura-Aretoa” erabiltzeko eta Hilerrian Kolunbario Zerbitzua erabiltzeagatiko Ordenantza arautzaileak onartu ditu. Bi Ordenantzetan aipatutako zerbitzuak jasotzeagatik dagokion tasaren ordainketa xedatzen da eta horregatik, azterketa ekonomikoak egin ondoren, Hazienda Batzordeari ondorengo akordio proposamena egiten zaio, bidezkoa ikusiz gero Udalbatzaren onespenerako aurkez dezan:

- *Kolumbarioa 10 urtetan erabiltzeko eskubidearengatik: 300 €*
- *Kolumbarioa beste 10 urtetan erabiltzeko eskubidearengatik: 200 €*
- *“Lotura-aretoa” erabiltzeko eskubidearengatik: 50 €”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Beraz, bozketa eginda aho batez ondorengo erabakia onartu da:

Lehenik. Aipatutako tasei hasierako onspena ematea.

Bigarren. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 30 eguneko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartuta geldituko dira.

6.- TARIFAK. Beasaingo Loinatz Musika Eskolan eta Ludotekan 2012-2013 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onspena.

Alkatea jaunak, Ogasun Batzordearen ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Hazienda Batzordeak 2.012ko maiatzaren 31n egindako bileran, 2012-2013 ikasturtean Musika Eskolako eta Ludotekako zerbitzuengatik aplikagarri izango diren tarifen onspena proposatzen dio Udalbatzari:

**BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA
2012-2013 IKASTURTEA**

Urteko kuota/

	<u>Cuota anual</u>
MUSIKA TAILERRA	190,00 €
HASTAPENA	245,00 €
INSTRUM. + M. LENGOAIA II. MAILA	650,00 €
INSTRUM. + GAI TEORIKOA III. MAILA	690,00 €
M. L. + PANDERO EDO + KANT TALD	480,00 €
M. LENGOAIA	240,00 €
GAI TEORIKOAK	240,00 €
INFORMATIKA	240,00 €
INSTRUMENTUA II. MAILA	485,00 €
INSTRUMENTUA III. MAILA	510,00 €
TRIKITIXA (II. MAILA)	420,00 €
TRIKITIXA (III. MAILA)	440,00 €
PANDEROA	300,00 €
KANTUA TALDEAN	220,00 €
PIANOA + AKONPAINAMENDUA	750,00 €
PIANOA + AKONPAINAMENDUA + GAI TEORIKOA	905,00 €
BAKARLARI	510,00 €
IZENEMATEA 13-14	41,00 €
MATERIALA	12,00 €

Familia partaide kopuruarengatiko dirulaguntza:

1. *partaideak: kuota osoak*

2. *partaideak: kuota osoak*

Familia bereko 3 senide daudenean, kuota txikienaren kopuruko dirulaguntza emango da.

- Matrikula formalizatzen den unean urteko kuotaren ordainketa-betebeharra sortzen da, beraz, kurtsoan zehar gerta litezkeen bajak, haren amaierarako falta den hilabete kopurua edozein izanik ere, ez dute kuotaren murrizketarako eskubiderik sortzen.

Ordainketarako epea: Urteko kuotaren kobraketa 10 hilabetetan zatituko da irailetik ekainera bitartean.

Udal ludoteketan zerbitzua emateagatiko tarifak

Zerbitzua irailetik ekainera emango da eta dagokion tarifa 61 eurokoa izango da.

2013ko urtarrilean matrikulaldia irekiko balitz, zerbitzuaren erabiltzaile berriek ordaindu beharreko tarifa 30,5 eurokoa izango da eta zerbitzua otsailetik aurrera emango da.

Udaleko Gizarte Ongizate Sailak sustatutako eskuhartze programetako partaide diren adin txikiko eta gazteei ludotekako tarifa subentzionatuko zaie.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Josi Insausti Mujika jaunak (H1): “Proposamenarekin ados banago ere, batzordeetan komentatu dudana esango dut. Udal gobernuak erabaki zuen tasak ez igotzea, baina kontutan izanda tasa hauek 2012-2013ko tasak direla, irizpide nagusiarekin kontraesana dago. Hala eta guztiz ere ados nago.”

Unai Baztarrika jaunak (NAHIA): “Garbi izan behar da Musika Eskolaren finantzaketa sistema zein den. Betidanik, Udala, matrikula eta Eusko Jaurlaritzatik jasotzen den arteko oreka mantentzea saiatu da. Egia da aurreko urteetan akordio bat izan dela Musika Eskolan urte arteko KPI igotzeko. Ezin dugu ahaztu ezta ere Eusko Jaurlaritzaren laguntza murrizteko aurreikuspena dagoela. Beraz, hori guztia kontutan izanda, ezin da dagoen moduan mantendu zeren eta bestela Udalak aurre egin beharko dio gehikuntzari. Nahiz eta tasak igo, onartu behar dena da lehendik datorren planteamendu bat dela eta hori ezin dela hautsi.”

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da ondorengo erabakia:

Lehenik. Aipatutako tarifei hasierako onespina ematea.

Bigarren. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 30 eguneko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartuta geldituko dira.

7.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. Euskaltegian euskara ikasten ari diren herritarrei dirulaguntzak emateko oinarrien aldaketa.

Alkate jaunak Kultura eta Euskara batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

1. 2008ko apirilaren 13ko Udalbatzan “Euskaltegietan euskara ikasten ari diren herritarrei dirulaguntzak emateko oinarrien aldaketari” hasierako onespina eman zitzaion eta alegaziorik

aurkeztu ez zenez behin betiko onartutzat eman ondoren, 2008ko ekainaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren oinarri horiek.

2. 2011ko urriaren 18ko Kultura eta Euskara batzordean 2012-2013 ikasturterako laguntza horien oinarriak berraztertze erabakia hartu zen.
3. Kultura eta Euskara batzordeak Udalbatza Osoari proposatzen dio oinarriak aldatu eta berriro argitaratzea ondorengo xehetasunak jasota:
 - a) HABEK homologatutako ikastaro guztietan %60ko laguntza ematea.
 - b) Gutxienez, euskalduntzeko urrats bat edo alfabetatzen ikastaroetako bat (alfa 1 edo alfa 2) gainditzea. Euskalduntzeko 01-08 bitarteko urratsetan ez da lehendik diruz lagundutako urratsik lagunduko; aldiz, 09-12 arteko urratsetan, gehienez ere, aurrez lagundutako bi urrats beste behin laguntzeko aukera eskainiko da; kasu bietan ikaslearen azken bost ikasturteetako ikas prozesua hartuko da kontuan. Ikasprozesua jarraitua denean, aurreko ikasturtean diruz lagundutako urratsa baino baxuagorik ez da lagunduko. Alfabetatze ikastaroei dagokienez, alfa 1 eta alfa 2, bakoitza bi aldiz laguntzeko aukera eskainiko da.
 - c) Eskatzaileek Udalarekin inolako zorrik ez izatea.
 - d) Oinarri hauen xede diren diru-laguntzetarako Udalak urte horretarako aurrekontuan finkatutako kopurua erabili da. Aipatu diru kopurua diru-laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten ikasle guztien artean banatuko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da ondorengo erabakia:

Lehenik. Aipatutako oinarriei hasierako onespina ematea.

Bigarren. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 30 eguneko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartuta geldituko dira.

8.- MOZIOAK. BILDUK aurkeztutako mozioak:

- 1936. urteko fusilamenduak.

Alkate jaunak mozioaren berri eman du:

“1936ko altxamendu faxista Estatuan uztailaren 18arekin hasi eta Beasaina egun gutxira iritsi zen, uztailaren 26 eta 28 artean Herri honek bere historian bizi izan dituen egunik beltzenak eman zirelarik.

Egun horietan Dolarea eta Zapatarri artean 32 herritar fusilatutako izan ziren, Gipuzkoan altxamendua babestu zutenek egindako ibilbide odoltsuan lehen urratsa gure Herrian eman zutelarik.

Adin eta kondizio desberdinetako pertsonak erori ziren faxisten fusilpean, bildu ahal izan diren datuen arabera. Gertakari larriak izan ziren haiek, hilabete luzeetako guda giroa Estatu osoan zabalduz. Francoren garaipenaren ondoren, jakina da garaileen historiarik ankerrena soilik kontatu ahal izan zela eta horrela bertako lekukotza guztiak zentsura, beldurra eta isiltasunik zurrunen azpian ezkutatu behar izan zutela.

Urte asko pasa dira, aurki 76, eta gure asmoa gertatutako hura berritzea ez bada ere, Beasaingo historian izan dugun pasarterik gordinenari oroigarria eskaini nahi diogu, gertakizunak eman ziren lekuan hainbeste oroimen isilduei argia eta lekukotza emanaz.

Guzti hau kontutan hartuta, aurtengo uztailaren 27an, fusilamenduak eman ziren egunean, lekuan bertan oroigarri bat jarri eta ekitaldi instituzional xume bat egitea proposatzen diogu Udalbatzari, bertan gertatutakoa eta fusilatuak izan zirenei Herriaren errekonozimendua adieraziz. Oroimen argiak soilik lagundu dezakeelako horrelako gertakariak inoiz ez errepikatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “Desenterrar el tema de la guerra civil...., pienso que sería mejor dejarlo como está, enterrado. Remover este episodio negro de nuestra historia no hace más que reactivar rencores ya olvidados.”

Alfonso Segade González jaunak (PSE-EE/PSOE): “Parece que seguimos con los mismos defectos, porque a mi no me ha llegado la moción en castellano y a una máxima en democracia que es el respeto al semejante.

El 20 de julio de 2006, se celebraba el 70 aniversario de la guerra civil, y en este Ayuntamiento (por mayoría, excepto el PP), se aprueba un reconocimiento a los fusilados en Beasain. Estas cosas son delicadas y más cuando se manejan de manera no muy transparente. En aquel momento se hace un reconocimiento a todas estas personas fusiladas. Fue un tema unánime. Se hizo un presente a los familiares de los fusilados y ahí se acabó. Volver a lo mismo, no sé por qué y para qué, no me parece muy correcto, aunque vamos a votar a favor, porque nosotros los socialistas sabemos lo que pasó y lo que nos afectó. En estas cosas somos extremadamente sensibles, pero en democracia se debe de ver todo, no sólo una parte porque si somos tuertos tenemos el riesgo de tener mutilados mentalmente. Si hablamos de memoria y de reconocimientos hay que hacer un poco de todo. A quien insta la presentación de esta moción, no les he visto en los homenajes, por ejemplo, en la rotonda del ambulatorio. Seamos un poco coherentes y en democracia cuando hablemos, hablemos de todo. No obstante, insisto. Nosotros apoyamos la moción.”

Iñaki Saldaña jaunak (BILDU): “Yo quería responder al portavoz del PP diciéndole que mientras unos están desaparecidos, en cunetas o han sido los que han trabajado en el mausoleo de los caídos, otros están bien honrados. Creemos que la única memoria que se merecen aquellos pobres hombres, es nuestra memoria.”

Asier Sarriegi jaunak (BILDU): “Nik esan nahi dudan bakarra da, hik ez ikustea pertsona batzuk errekonozimendu batzuetan, ez duela esan izan garenik. Nik ere hi ez haut ikusi zenbaitetan eta horrek ez dik esan nahi ez haizenik izan. Guk parte hartu

diagu zenbait errekonozimenduetan eta ez zaidak iruditzen guri inork esan behar digunik egon gaitezkeen edo ez.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (BILDU, EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, NAHIA)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 2

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu egin da.

- Nafarroaren konkistak, 500 urte.

Alkate jaunak (BILDU) mozioaren berri eman du:

“1512-2012: Nafarroaren konkistak 500 urte

Euskaldunon soberaniaren azkenugarra gogoan

PUNTUAK:

1. (Beasain) -ko Udalak/Kontzejuak, duela 500 urte Nafarroaren, hau da, gure Estatuaren independentzia defendatu zutenei agur eta ohore egin nahi die. Hortaz, duela bost mende Tuteran, Lizarran, Burgin, Donibane Garazin, Garruzen, Noainen eta bertze anitz lekutan gure libertatearenugarra babesteko borrokatu zirenak omendu nahi ditu, eta euskaldun guztion Nafarroa bizirik dela aldarrikatzen du.

2. Udal/Kontzeju honek bat egiten du "1512-2012" Agiriarekin zein 1512ko konkistaren bosgarren mendeurrena gogorarazteko abiatuko diren ekimenekin. Bere ahalekin arabera, laguntza eskainiko die.

OHARRA: Manifestu hau, ekimenajai zenean zabaltzen hasi ginen, 2008.urtean; alegia. 2011ko ekainaren 5ean berreskuratu genuen, 2012. urteari begira, atxikimendu gehiago lortzeko asmoarekin. Behean duzue atxikimendua emateko bidea. Mi/a esker 1!

1512-2012 Nafarroaren konkista

Gertu dago armada gaztelar eta aragoarrek Nafarroako Erreinua konkistatu zuteneko bostehungarren urtemuga. Espainia zabalkunde garaia bizitzen ari zen lurraldeari zegokiola. 1512ko uztail hartan, haien Armadak Nafarroaren bihotza inbaditu zuten, mende batzuk lehenago bere mendebaldeko lurraldeekin egin zuten bezala. Gertakari horien ondorioz, Herri oso batek galduko zuen bere subiranotasuna. Nafarroa herri askea zen; herri txikia, baina Pirinioetako bi aldeetan estrategikoki kokatua; Gazteta eta bere hedatze nahia sortu baino askoz lehenago zegoena. IX. mendean, turralde hauetako bizilagunek bere estatutitatearen hazia ezagutu zuten: Iruñeko Erresumaren egitura politiko-instituzionala, gero Nafarroako Erresuma izango zena Espainiar armada, Albako Dukearen agintepean, su eta gar sartu zen eta Luis Correak idatzitako konkistaren gaineko historian Villalva Koronelaren hitzetan jarria da armada inbaditzaileak erabiti zuen basakeria: "herriak erre ziren, ehunka nafarrek alde egin zuen, emakumeak bortxatu zituzten, ondasunak konfiskatu zituzten, erbesteratzeak izan ziren, exekuzioak ...". Gazteluak suntsitu ziren, nafarrentzat bakarrik izan zitezkeen karguetan espainolak sartu ziren. Herriek okupazio-armadaren gastuak ordaintzen zituzten "gerra gastuak" bailiran. Okupazio militarrek 100 urte iraun zuen, eta gaur arte luzatu da. Hala ere, mende luze hartan gaztelarren kontrako konspirazioak ere izan ziren, nafarrak ziren, hemengo jendea, nahiz eta erregeordeek "euren luraren aurkako erreboltariak" deitzen zieten. Konkista eta ondorengo garaia gogorra izan zen, kezka handikoa, eta ez baketsua. Honek kontraesanean jartzen du "berdinen arteko hitzarnena" izan zeta dioen bertsioa, "bat egite zoriotsua" asmo txarreko interpretazio historikoa da, azken batean, egungo Nafarroaren egoera legezkotzat eman nahi baitu. Hori da, hain zuzen, gaurko hainbat instituzio ofizialen jarrera, zeinek data hori ospatu nahi duten, gaurko ustezko oparotasunaren zein geroko zorientasunaren iturburu gisa. Okupazioari erresistentzia etengabekoa izan zen; egitandi gogoangarriak izan zirelarik, Amaiur defendatu zutenena kasu. Honez gain, geroztik eta egun arte herri honen estatusaren hondaketa-prozesuak aitzina segitu du, bere subiranotasuna bame, probintzia bihurtzeraino eta egun, Autonomía Erkidego, ia-ia Nafarroa izena desagerraraziz. Gaur, Nafarroa Espainiara libreki bildu zeta dioen faltsukeriaren aitzinean, 2012an Espainia Nafarroa Garaia konkistatzen hasi zela 500 urte beteko direla gogora ekarri nahi dugu, data hura giltzarri izan zen gure estatalitatea indarrez hondarazteko. Gure mendeetako ibilaldia erakutsi nahi dugu eta kendu ziguten hura berreskuratzeko eskubidea dugula garbi adierazi; burujabetza galdu izana gure herriarentzat galbidea izan da.

Historiak independente izan ginela erakusten digu, eta izateari utzi geniola, ez gure arbasoen nahiaz, baizik eta espainiar eta frantses nahikeria dela eta. Gerrak, kolonizazioak eta bortzak gure identitatearen garapena zapuztu dute. Eta, hain zuzen ere, gure interes nagusia ez baita iraganean, orainean eta geroan baino, memoria historikoa berreskuratu nahi dugu askatasunerantz pausoa emateko eta gure eskubideak defendatzeko.

1512 hartatik ia bostehun urte joan dira, baina Nafarroa bizirik da eta, gaurkotasun osoz, honako eskaera luzatzen dugu: egungo nazioarteko testuinguruan, duela denbora gehiegi kendu ziguten nafar naziotasuna berreskuratu eta etorkizun askea izan.

Horregatik guztiagatik, deia bikoitza Juzatu nahi dugu:

Batetik, dei egiten diegu jendeari, udalei eta gainontzeko talde zein erakundeei 1512-

2012 Nafarroa Bizirik ekimenaren ikurra ikusgai izatera.

Bestetik, dei egiten diegu pertsona, talde, elkarte, udal zein instituzio orori Agiri honi zein ekainaren 16ko Euskal Herriko Ibilaldi Nazionalari atxikitzea. Eta, bereziki, 2012ko uztailaren 25ean, Albako Dukearen Armada nafar hiriburuan sartu ziren 500. urteurrena, nafar bandera haga erdian edota dolu-xingolarekinjartzera.

1512-2012 Nafarroa bizirik!

Atxikitu zaitez !!

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Ados gaude esaten denean, Nafarroaren konkista armaren bidez egin zela. Ados gaude Nafarroako erresuma ordurarte independientea izan zela. Ados gaude euskaldunok eta nafarrak ere herri bat osatzen dugula eta oraindik ere era traketsean bada ere gordetzen ditugun eskubide historikoak jatorrizko gure burujabetzaren lekuko dira. Gure printzipioa da, euskaldunok gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea dugula, herri bat garenez eta nazio bat. Aitortzen dugu gure nazioa zazpi lurraldeek osatzen dutela, Nafarroa barne, Nafarroa bera, Baxenabar Lapurdi, Xuberoa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Horregatik Eusko Alderdi Jeltzalearen muinean zazpi lurraldeak daude, zazpiak bat eginez gure nazioa osatzen duten printzipioa. Beraz, autodeterminazio eskubidea dugula berresten dugu. Munduan diren herri eta nazioei desberdinei egokitzen zaien moduan. Horregatik gora Euskadi askatuta, esaten dugunean gainontzeko lurraldeak ez ezik Nafarroa ere bere osotasunean barneratzen dugu. Horregatik, ez gatoz bat Nafar nazionalitatea eskatzearekin. Nafarroa bizirik plataformak, Nafarroa nazio bezala eraiki nahi du. Nire galdera hori da, horren alde zarete?. Euskadi non gelditzen da?. Euskal Herria non gelditzen da?. Nafarroa da nazioa?. Guretzat Nafarroa Euskal Herrian barne dago eta guk aldarrikatzen duguna da Euskal Herria osotasunean. Aurrekari guztiarekin ados egonda ere, iruditzen zaigu

Nafarroa nazio bezala egitea Euskal Herria zazpiekin puskatzea dela. Gu horrekin bat ez gatoz.”

Alkate jaunak (BILDU): “Azaldu, mozio hau ez dela BILDUkoa, baizik eta mozioa hau da “Nafarroa bizirik” plataformarena. Guk mozioa honi bidea eman diogu, beste askori ematea dugun bezala eta askotan ezezkoa botatu dezakegun bezala. Gu ere zazpi lurralde horiekin bat gatoz. Ez dut uste Nafarroa nazio bakarria izateko asmoarekin idatzita dagoenik.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nafarroa bizirik” plataformak zazpiak-en gainetik denak nafarrak kontsideratu nahi ditu. Politikoki ez du zer ikusirik bata bestearekin. Hori horrela izan da, Euskal Herria non gelditzen da?!

Unai Baztarrika jaunak (NAHIA): “Argitzearren esan, “Nafarroa bizirik” mugimenduak onartzen duena dela Nafarroa dela euskaldunon estatua. Nazioa Euskal Herria izango da.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nazioa eraketa politiko bat da.”

Asier Sarriegi jaunak (BILDU): “Euskal Herria da kulturalki euskararen herria. Nafarroari estatua deitzea ez du ezer aldatzen herriarekiko dugun kontzeptua.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Gure ustez, bai.”

Julio Herreros jaunak (PP): “Al igual que la anterior moción, no hay que desenterrar hechos acaecidos hace 500 años en Navarra. Los navarros son los que tienen que deben manifestarse sobre estos hechos, si es que lo quieren hacer. Yo no lo voy a hacer.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (BILDU, NAHIA)

Aurkako botoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 2

PSE-EE/PSOeko bi zinegotziek ez dute bozketan parte hartu.

Horren ondorioz, aldeko botoen kopurua aurkakoena baino txikiagoa denez, ez da onartu mozioa.

9.- ALKATEAREN EBAZPENAK

Ezagutzera eman dira, Alkateak 2012ko apirilaren 24tik 2012ko ekainaren 2rarte emandako ebazpenak.

10.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

ERREKARTE I, 32 AREA

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Noticias de Gipuzkoa” egunkarian Errekarteri buruz kronika bat ateratzen eta gure ustez egiak ez diren bi baieztapen egiten ziren Alkatearen ahotan. Esaten da Telleri eta Errekarte baserriak XV. eta XVII. mendekoak direla. Nire galdera, Alkateari zuzendua da, jakiteko ea hori horrela esan zuen.”

Alkate jaunak (BILDU): “Ez dizut erantzungo. Jatorria noizkoa den erre zienetik ez dakit”.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guretzat garrantzia du, zeren eta XV. eta XVII. mendekoak badira zalantzarik ez dago ondare historikoa bezala gorde behar direla. Aldiz, horrela ez bada....Eusko Jaurlaritzak igorritako txostenak dio Errekarte baserriak ehun urte dituela. Nik Osoko Bilkurari proposatzen diodana da, ondo ikusten baduzue, behintzat, Josetxo Zufiaurreri, herrian duen itzalagatik, txosten bat eskatzea Telleri eta Errekarte baserrien jatorri eta historiari buruzkoa. Onartzen bada, Alkateak eskaera hori bideratu beharko luke.

Beste alde batetik eta hau larriagoa iruditzen zait, hala esan bazen behintzat, testualki irakurriko dudan ondorengo baieztapena: *los tiempos en que se regalaban terrenos a las constructoras han finalizado*.

Alkate jaunak (BILDU): “Bai. Nik horrela esan nuen.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Noiz oparitu dituk terrenoak?”.

Alkate jaunak (BILDU): “Kontzeptu baten barruan bai. 2012.ean oraindik une batean %10eko aprobetxamenduarekin funtzionatzen ari gara eta legez %15a izan behar da. Errekarte kasuan sotoetan, %15eko aprobetxamendua ez da kontsideratu. Horrelako kasuetan garbi dago eta balorazioak egiterakoan modu desberdinetan egin daiteke, naiz eta honek ere irakurketa desberdina izan.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Beno baino gertatu daiteke lurzoru lege berria baino lehen hasitako planeamenduaren garapena izatea eta orduan uste dut %10 dagokiola. Baina gauza bat da zuk negoziatzea hemengo konstruktora

batekin negoziatu zen bezala, %15eko ordainetan bi pisu ematea eta beste bat terrenoak oparitzea. Niri larria iruditzen zait aurreko kudeaketa zikindu nahi izatea kontzeptuak erdi-egiaz edo gezurren bidez adieraziz. Denon Alkatea zara eta gauza horiek estekotan ezin dira hain arin esan. Zuk esaten baduzu terrenoak oparitu egin direla, nik ez dakit inork ulertzen duen hori negoziaketa baten ondorioz gehiago edo gutxiago ematea den edo besterik gabe hartu eta oparitu beste batzuk aberasteko.”

Alkate jaunak (BILDU): “Gehiago edo gutxiago, errepartzelazio bat egiten denean, legeak dio aprobetxamendua %15a dela eta 8. sektorean adibidez, ez dakit zenbait errepartzelazio egin diren. Lehenengoan akatsa egitea, bueno, baina bigarrenean eta ondorengoetan...”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Baina, Errekarteko errepartzelazio ez da oraindik onartu.”

Alkate jaunak (BILDU): “Ni ez naiz sartu Errekarteko errepartzelazioarekin.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Zein errepartzelazio, orduan?”

Alkate jaunak (BILDU): “8. sektoreko errepartzelazioan.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Baina, hor ilegalidaderen bat dago?”

Alkate jaunak (BILDU): “Nik esan dut ilegalidadea dagoela?”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Ez, %15a onartu beharrenean, %10a onartzen bada ez da legala. Hori gertatzen bada, argi esan noiz, non eta zergatik. Ez du balio balioa bota eta zehatz-mehatz ez esan non gertatu den.”

Alkate jaunak (BILDU): “Nik ez dut uste guk gauzak arinkeriaz esan ditugunik.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Garbi dagoena da, ez bada demostratzen terrenoak oparitu diela, arinkeria da.”

Alkate jaunak (BILDU): “Uste dut bi kasu garbi esan ditudala. Oker ez banago, Errekartekoa baimentzeko Arau Subsidiarioen bitartez egin behar zen aldaketa eta planeamenduaren bidez egin zen. Legea aldatu baino hiru egun lehenago aldatuta dago. Lau egin beranduago aldatu izan bazen, 39 babes ofizialeko etxebizitzak izan ordez 52 izango ziren. Hori da irakurketa bat. Bakoitzak egingo du nahi duena.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik ulertzen dudana da, konstruktoreak hiru egun lehenago aurkeztu zuela, bestela babes ofizialeko etxebizitza gehiago egin behar zituelako eta beraiek irabazi gehiago izateko. Logikoa da. Baina horrek ez du esan nahi Udalaren aldetik ilegalitatea dagoela.”

Alkate jaunak (BILDU): “Baina, hemengo aholkulariak ez zekien eraikigarritasun gehikuntza hori Arau Subsidiarioak aldatuz egin behar zenik?. Hori ez dut uste legalitate barruan dagoenik.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Baina, hortik terrenoak oparitu egin direla esatea?.

ZABOR ONDARREN PLANA

Josi Insausti jaunak (H1): “Ultimamente en varias ruedas de prensa (el lunes y hoy), como Alcalde de Beasain, has comparecido en las mismas demostrando el apoyo al nuevo plan de residuos. En el pleno del 6 de octubre del año pasado, se adoptó por mayoría absoluta un acuerdo que es lo contrario a lo que en las ruedas de prensa se está diciendo respecto al plan de residuos. Uno de los puntos, que se aprobó es que el Ayuntamiento de Beasain muestra su total apoyo al desarrollo de los planes contemplados en el PIGRUP y en el documento de desarrollo. Quisiera saber qué es lo que vas a defender como Alcalde de Beasain, esto es, el acuerdo que se tomó el 6 de octubre de 2011 por el Pleno o algo que no ha sido refrendado por la Corporación.”

Alkate jaunak (BILDU): “Como Alcalde de Beasain defenderé el acuerdo de Pleno, pero en la rueda de prensa que hemos dado esta mañana, lo que hemos dicho es que estamos a favor del reciclaje, sin entrar a valorar el sistema. Lo que si pensamos es que se debería de llegar a reciclar el 80 o 85%, como se está reciclando en otros sitios.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Entiendo que como Alcalde de Beasain, independientemente del grupo al que pertenezcas, cuando se toma un acuerdo en Pleno y además por mayoría absoluta, guste o no, entiendo que es el que tienes que defender. Pero es que hoy, los tres Alcaldes apoyáis el nuevo plan de residuos de la Diputación. Lo que si pido es que el equipo de gobierno y el Alcalde respete y defienda los acuerdos adoptados en Pleno.”

Alkate jaunak (BILDU): “Una cosa es el acuerdo de pleno y otra cosa es lo que pienso yo.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Como Koldo Agirre si, pero como Alcalde no.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Es que en la rueda de prensa apareces como Alcalde de Beasain y representas a un municipio. Tu estás ahí por ser el Alcalde, de lo contrario no estarías.”

Alkate jaunak (BILDU): “Yo creo que en otros municipios no hay este jaleo.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Yo creo que lo que valen son los argumentos, no donde se den. De todas maneras, hablando del 6 de octubre, yo quiero felicitar al Alcalde porque si mal no recuerdo, se planteó la posibilidad de ampliar el vertedero de Sasieta. Quiero felicitarle en el sentido de que por lo que he leído, que no sé si es así, habéis tomado la determinación de que en 2014, se cierra Sasieta.”

Alkate jaunak (BILDU): “Si la intención es cerrar todos los vertederos.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Si la Directiva manda eso, pero bueno....También quiero comentar que el día 13 de marzo, en la comisión de servicios se planteó que se pusiera el chip en el quinto contenedor, y por unanimidad se dijo que se iba a poner. Es más en el última comisión se nos dijo que estaba dicho. Cuál ha sido mi sorpresa cuando llamo a Sasieta y me dicen que no tienen ninguna notificación al respecto. Si se ha adoptado el acuerdo por unanimidad, pienso que es para que todos reciclemos más.”

Alkate jaunak (BILDU): “La persona que te puede responder a eso no está aquí. Lo que si te puedo decir es que yo estuve con el Presidente de Sasieta hace mes y medio aproximadamente y me dijo que desde hace un año o dos estaba aprobado que se hiciera un estudio para saber qué sistema es el mejor para Beasain. El estudio duraría 6 meses. Nosotros vemos conveniente esperar a conocer lo que resulta del mismo y además teniendo en cuenta que tanto Lazkao como Ordizia va a aplicar el quinto contenedor, se puede aprovecha la inversión que han hecho ellos para poder implantarlo también en Beasain. “

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “En la rueda de prensa se dice que la potestad para tomar esas decisiones compete a los Ayuntamientos, ni a las Mancomunidades ni a las Diputaciones. Ahora, tiene que ser el presidente de la Mancomunidad el que diga qué tiene que hacer el Ayuntamiento de Beasain?. En un tema tan delicado la agilidad sería deseable. La inversión que se necesita es de 8.000 €. Sasieta va a gastar 12.000 € sólo, en la campaña de sensibilización en Urretxu. No creo que sea un tema económico. La practicidad también la apoyo yo y los chips que se retiren en un sitio que se implanten en otro. Pero si se ha tomado una decisión, hay que ser consecuentes con ella.”

ORMAKekin SINATUTAKO HITZARMENA

Une honetan afektatuak hitza eskatu du eta berari tasazioa egin zionari hitza pasatu dio eta honek adierazi du bere ustetan ORMAK-ek kaltea estaltzeko proposatzen duena ez dela nahikoa, garaje baten ordeztan apartamendu bat eskaini beharko lukeela.

Afektatuak eskatu du proiektatuta dagoen ordenazio berria ez onartzeko eta lehen zegoen moduan uzteko.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nos llama la atención que haya habido dos valoraciones y sean tan dispares. Nosotros como partido, si creemos que ha habido un daño, que hay que repararlo y que el Ayuntamiento tiene que tomar parte porque es una decisión política la que se tomó.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak eta hamarreen amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.